# HOMOLOGAZIOA BIDEAN, %2ko SOLDATA IGOERA LAN-HITZARMEN BERRIKO NEGOZIAZIOA HASTEKO.

## *Martxoaren 30ean EAEko ikastoletako Lan-hitzarmeneko mahaia bildu zen. Bertan, besteren artean, ondoko gaiak jorratu ziren.*

**1) Lan-hitzarmen berriaren negoziazioa.** 2021eko Lan-hitzarmena salatu ostean, hitzarmen berria negoziatzen hasteko prozedura abiatu da. Hemendik maiatzera gure afiliatu eta delegatuekin hitzarmen berrirako eskakizun plataforma osatzeari ekingo zaio.

**2) Lansarien igoera.** Ikastolen Elkarteak zein EIBk, aldebakarrez, ordainketa eskuordetutik jaso duten %2ko igoera aplikatuko dute langile guztien oinarrizko soldatan zein antzinatasunean. Igoera apirileko nominan gauzatuko da eta atzeraeraginkortasuna izango du urtarriletik. Lan-hitzarmen berriko negoziazioan soldata igoera hau osatu beharko litzateke.

**3) Sukaldeko langileen ratioak eta garbitzaileen metrajea zehazteko batzordea.** Azken Lan-hitzarmenean kolektibo hauetako langileen egoera aztertu eta ratio proposamen bat egiteko batzordea eratzea adostu zen. Batzorde hau bere ibilbidea egiten ari da eta lehen emaitza bezala ikastoletan zein errealitate dugun ikusi da. Kezkaz bizi dugu ikastoletako sukaldeen %68a, jangelako begiraleen %58a eta autobusetako begiraleen %38a kanpo enpresen esku egotea. Langile hauek gure hezkuntza komunitateetako kide direla sinesten dugunez ezinbestekoa da zerbitzu hauek zuzenean ikastolek kudeatzea. Horrez gain, ekainerako sukaldeko langileen ratioak zein garbitzaileen metrajeak Ikastolen Elkartearekin adosteko konpromisoa berresten dugu.

**“EHIk eta EIBk, aldebakarrez, %2ko lansarien igoera aplikatuko dute langile guztientzat”**

**“Soldata igoera Lan-hitzarmen berriaren negoziazioan osatu beharreko pausotzat hartzen dugu”**

**4) Antzinatasuna.** Azken urteetan hainbat epaitegik sei hilabete baino kontratu etete motzagoak izan dituzten langileen antzinatasuna lehen kontratuko datatik aitortu behar dela ebatzi dute. Egoera horretan dauden langileek ikastoletan erreklamazioak sartzeko eskubidea dutela gogorarazten dugu. Eskari hori egiteko bidelagun izango duzue LAB. Gai honen harira, Hezkuntza Sailari dei egiten diogu dagokion ardura har dezan, eta ordainketa eskuordetuan egin beharreko aldaketak ahalik eta azkarren bidera ditzala exijitzen diogu.

## LAB IKASTOLETAKO LANGILEEN ESKUBIDEEN ALDE!
## GORA LANGILEON BORROKA!

Ikastolakgipuzkoa@lab.eus 666779156
ikastolakgipuzkoa1@lab.eus 666775746
ikastolakbizkaia@lab.eus 674137953
ikastolakbizkaia1@lab.eus 674137908
ikastolakaraba@lab.eus 666774912
ikastolaknafarroa@lab.eus

## Lansari taula berriak:

| | 2021 LANSARI-TAULA | | | | 2022 LANSARI-TAULA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | HILEKOA | | URTEKOA | | HILEKOA | | URTEKOA | |
| | O.Soldata | Aintzin. | O.Soldata | Aintzin. | O.Soldata | Aintzin. | O.Soldata | Aintzin. |
| **I. TALDE PROFESIONALA.- Irakasleak** | | | | | | | | |
| **A) ZUZENEKO IRAKASLEAK** | | | | | | | | |
| **HAUR HEZKUNTZA 1. ZIKLOA** | | | | | | | | |
| Irakaslea | 2.411,00 | 44,58 | 33.754,04 | 624,08 | 2.459,22 | 45,47 | 34.429,12 | 636,57 |
| Hezitzailea | 1.753,46 | 37,30 | 24.548,50 | 522,20 | 1.788,53 | 38,05 | 25.039,47 | 532,65 |
| Hezitzaile Laguntzailea* (Aldi Baterako Xedapenak) | 1.578,13 | 37,30 | 22.093,75 | 522,20 | | | | |
| **HAUR HEZKUNTZA 2. ZIKLOA eta LEHEN HEZKUTNZA** | | | | | | | | |
| Irakaslea | 2.411,00 | 44,58 | 33.754,04 | 624,08 | 2.459,22 | 45,47 | 34.429,12 | 636,57 |
| **DBH LEHEN ZIKLOA** | | | | | | | | |
| Irakaslea A (HH+LH Tituluduna)* (Aldi Baterako Xedapena) | 2.557,93 | 44,58 | 35.811,00 | 624,08 | 2.609,09 | 45,47 | 36.527,22 | 636,57 |
| Irakaslea B (Lizentziatua) | 2.791,12 | 56,00 | 39.075,68 | 783,94 | 2.846,94 | 57,12 | 39.857,19 | 799,62 |
| **DBH BIGARREN ZIKLOA eta IRAKASKUNTZA ERTAINAK** | | | | | | | | |
| Irakaslea | 2.791,12 | 56,00 | 39.075,68 | 783,94 | 2.846,94 | 57,12 | 39.857,19 | 799,62 |
| **B) IRAKASLE TEKNIKOAK:** Psikologoa, Orientatzailea | 2.791,12 | 56,00 | 39.075,68 | 783,94 | 2.846,94 | 57,12 | 39.857,19 | 799,62 |
| **C) IRAKASKUNTZAKO LAGUNTZA-ZERBITZUETAKOAK** | | | | | | | | |
| Jarduera osagarrietako langilea | 1.664,71 | 37,30 | 23.305,97 | 522,20 | 1.698,01 | 38,05 | 23.772,09 | 532,65 |
| Hezkuntza Laguntza Espezialista | 1.833,57 | 37,30 | 25.669,94 | 522,20 | 1.870,24 | 38,05 | 26.183,34 | 532,65 |
| **II. TALDE PROFESIONALA- Administrariak** | | | | | | | | |
| Administrari-burua | 2.179,78 | 46,69 | 30.516,98 | 653,62 | 2.223,38 | 47,62 | 31.127,32 | 666,70 |
| Ofizial administraria | 1.934,83 | 42,05 | 27.087,66 | 588,75 | 1.973,53 | 42,89 | 27.629,41 | 600,53 |
| IKT Mantenu Teknikaria | 1.934,83 | 42,05 | 27.087,66 | 588,75 | 1.973,53 | 42,89 | 27.629,41 | 600,53 |
| Administrari laguntzailea | 1.673,74 | 37,44 | 23.432,36 | 524,09 | 1.707,21 | 38,18 | 23.901,01 | 534,58 |
| **III. TALDE PROFESIONALA.- Zerbitzu Orokorretako Langileak** | | | | | | | | |
| Sukaldari-burua | 2.179,78 | 46,69 | 30.516,98 | 653,62 | 2.223,38 | 47,62 | 31.127,32 | 666,70 |
| Sukaldaria | 1.599,35 | 42,20 | 22.390,94 | 590,79 | 1.631,34 | 43,04 | 22.838,75 | 602,60 |
| Sukaldari laguntzailea* (Aldi Baterako Xedapena) | 1.512,77 | 37,44 | 21.178,72 | 524,09 | 1.543,02 | 38,18 | 21.602,29 | 534,58 |
| Etxezaina (Aldi Baterako Xedapena) | 1.880,71 | 42,20 | 26.329,92 | 590,79 | | | | |
| Mantenuko Arduraduna | 1.593,85 | 37,31 | 22.313,89 | 522,29 | 1.625,73 | 38,05 | 22.760,17 | 532,74 |
| Mantenuko langilea (Aldi Baterako Xedapena) | 1.531,81 | 37,44 | 21.445,29 | 524,09 | | | | |
| Atezaina | 1.531,81 | 37,44 | 21.445,29 | 524,09 | 1.562,44 | 38,18 | 21.874,19 | 534,58 |
| Jangelako langilea | 1.512,77 | 37,44 | 21.178,72 | 524,09 | 1.543,02 | 38,18 | 21.602,29 | 534,58 |
| Garbiketako langilea | 1.512,77 | 37,44 | 21.178,72 | 524,09 | 1.543,02 | 38,18 | 21.602,29 | 534,58 |
| Garraioko langilea | 1.512,77 | 37,44 | 21.178,72 | 524,09 | 1.543,02 | 38,18 | 21.602,29 | 534,58 |

2022ko APIRILA


Ikastolakgipuzkoa@lab.eus 666779156
ikastolakgipuzkoa1@lab.eus 666775746
ikastolakbizkaia@lab.eus 674137953
ikastolakbizkaia1@lab.eus 674137908
ikastolakaraba@lab.eus 666774912
ikastolaknafarroa@lab.eus


>irakaskuntza LAB